

Donostian, Diputaziñoan, bildu dira: Etxaide jauna, buru, Oleaga, Irigarai Lafitte, Aita Villasante, Eppherre, Dassance, Mitxelena, Lekuona, ta Lojendio euskaltzaiñak, aita Larrañaga apezpiku jauna, San Martin eta Irigoyen urgazleak.

Oi dan otoitzagaz asi da batzarra.

Aurreko batzar-agiria irakurri ta ontzat artu da.

Euskalerriko jenteari diru-eske zuzendutako idazki bat irakurri ta ontzat artu da.

Irigoyen-ek P. Diez de Ulzurrun-ek zuzendu deutsan karta bat irakurri dau. Bertan diño Nafarroako Diputaziñoak amabi milla peseta emotea erabagi dauela iztegi-lanetarako "P. de Viana"-ko euskal sailaren eskabidez. Baita gogoz ari direala datorren urterako Nafarroako bertsolarien sariketak prestetan, eta aurtengo euskal-jaiak Echalecu, Betelu, Luzaide eta Auza-n izan dituezala 772 sari emonik. Datorren urtean 743 emon bear ei dituez aurtengo ume-esamiñai jagokiezanak. Oso pozik entzun dira barri guztiak. Irigaray jaunaren eskuetan itxiten da dirua jasotea.

Iztegiak jardunaldi bat izan da.

Bilboko Arriaga Teatroan Euskaltzaindiak egingo dauen urteroko jaiaren barri emon da.

Irigoyen-ek diño San Martin ta biak Mondragoen izan direala Bernabe Berecibar Loramendi-ren omenezko jaiak prestetan ari izan zanagaz eta bertako beste euskaltzale batzukaz. Euskerearen alde Euskaltzaindiaren laguntzaille legez zerbait egin gurarik dabilta an. Euskaltzaindiak begi onez ikusten dau gogo ori.

Erkiaga-k irabazi eban Domingo Agirre novela-saria Bilbon Euskaltzaindiaren etxean emon jako. Bertan itzaldi bat egin eban Aita Fernando Mendizabal-ek. Saria amar milla peseta izan da, eta emoillean Concepción Goiri andrea eta Sabin Arrillaga jauna izan dira, erdi bana. Eskerrak emon bekiez emoillean.

Gero barriketaldi bat izan da eta Aita Larrañaga apezpiku jaunak *Zeruko Argia* aldizkariak berba egin dau, eta San Martin-ek Eibarko umeen eskolez.

Beste barik oi dan otoitzagaz amaitu da batzarra.